



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2017.07.11n EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
AMAIA AZPIAZU ARAMBURU (ordezkoa)
OSCAR GARCÍA HORRILLO
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko uztailaren 11n, 11:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Gai-zerrendako puntuak aztertzeari ekin aurretik, lehendakariaren aurrean, Gobernu Juntako kide gisa bere karguaz jabetu da Amaia Azpiazu Aramburu, Arrasateko Udalaren ordezkaria, Ibon Arrupe Aldecocearen ordezkia.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2017ko ekainaren 13an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen aldaketa onartzea

2017ko maiatzaren 8an Mankomunitate honi jakinarazi zitzaion, entitate kontsortzio-kide den aldetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2017ko apirilaren 12ko bilkuran hartutako erabakia; estatutuak aldatzeko proiektua behin betiko aldatzeari buruzkoa, hain zuzen.

Izapidetzen ari den estatutu-aldaketa hau Kontsortzioaren Batzar Nagusiaren ohiko, aparteko eta aparteko eta premiazko batzarren deialdi epeak murrizteko da. Lehen bi kasuetan, bi egun balioduneko gutxieneko epea ezartzen da deialdiaren eta bilera egunaren artean (orain arte 7 eta 15 egun baliodunekoak ziren), eta aparteko eta premiazko batzarren kasuan, orain arteko 3 egun balioduneko epea kentzen da, besterik ezarri gabe.

Orain arte, aipatu aldaketa-espeditentia Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen 35. artikuluan jasotako prozedura betez tramitatu da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketa-proiektuaren aldeko txostena egin du.

Hala, azkenik, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko entitateak arautzen dituen 6/2007 Foru Arauak, apirilaren 10ekoak, 11. artikuluan d) atalean aurreikusitakoaren arabera, eta goian aipatutako estatutuen 35. artikuluan horretan bertan ezarritakoari jarraituz, estatutuak aldatu ahal izateko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziora osatzen duten entitate kontsortzio-kideen gehiengoak bere onespina ematea beharrezkoa da, erakunde bakoitzaren barruan horretarako eskumena duen organoaren akordio bidez.

Dagozkion ondorioetarako, Mankomunitate honetako idazkariak ere, onartu nahi den erabakiaren legezotasunari buruzko txostena egin du.

Azkenik, Gobernu Juntaren legezko kide-kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

Lehenik.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren estatutuak aldatzeko proiektua onartzea, Kontsorzio horren Batzar Nagusiak 2017ko apirilaren 12an hartutako behin betiko akordioari jarraituz.

Bigarrenik.- Hartutako erabakia Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari jakinaraztea.

Une honetan, Jose Ramón Zubizarreta joan da bileratik.

3.2.- Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2. fasearen itxiera partziala eta 3. fasearen sorreraren proiektua garatzeko obra; obraren lizitazioari eta lan zuzendaritza kontratuari uko egitea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko ekainaren 13an, "Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2 fasearen itxiera partziala eta 3 fasearen sorreraren Proiektua" gauzatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartu zituen, dagokion esleitze-prozedura irekitzea erabakiz.

2017ko ekainaren 20ko 117 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen lizitazio iragarkia. Era berean, lizitazio horri dagokion proiektua eta baldintza-agiri administratiboa Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratu ziren.

Epeleko zabortegian Eusko Jaurlaritzak egindako azken ikuskaritzaren emaitzak ezagutu ondoren, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak txosten bat idatzi zuen non, besteak beste, esaten zuen egoera berria aztertu eta zabortegiaren ustiapenerako aukera ezberdinak aztertzea ezinbestekoa dela.

Hau honela izanik, ahalik eta kalte gutxien eragiteko, interes publikoko arrazoiak zeudela kontuan hartuta, Mankomunitateko lehendakariak ateratako lizitazioari uko egitea erabaki zuen.

Lehendakariaren ebazpen honen berri eman zaio Gobernu Juntari.

Ondoren, kontu-hartzaileak eta Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak Epeleko zabortegiaren egoera ekonomikoaren eta aukera desberdinen berri eman dute.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Lehendakariaren ebazpena berrestea, aipatu proiektua garatzeko obraren lizitazioari uko eginez.
2. Epeleko zabortegiari dagokionez, egon daitezkeen aukera desberdinak teknikoki aztertu eta iraileko Gobernu Juntaren bilkurara proposamen bat ekartzea.

3. HIRIGINTZA, S.A. enpresarekin sinatutako aipatu obraren lan zuzendaritza kontratuan atzera egiteko dagokion espedientea irekitzea.

3.3.- Etxean erabilitako olio biltzeko kontratazio espedientea huts deklaratzeko eta lizitazio berria ateratzea

2017ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Mankomunitate honetako Gobernu Juntak etxean erabilitako olio jasotzeko eta edukiontzia garbitzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean proposamen bakarra aurkeztu zen, ECO GASTEIZ, S.L. enpresarena.

Kontratazio Mahaiak, 2017ko ekainaren 20an egindako bilkuran, proposamen hau baztertzea erabaki zuen eskatutako kaudimen teknika ez egiaztatzeagatik, ez baitu hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile-baimenik olioaren kudeaketa-operazioak egiten dituen instalakuntzetan.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Lizitazio hau huts deklaratzeko.
2. Lizitazio prozedura berri bat irekitzea, kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Plegu berriak onartuz. Espediente honetan 450 €/edukiontziko/urteko lizitazio prezioa ezartzen da.

3.4.- Papera eta kartoia saltzeko espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Mankomunitateak jasotako paper eta kartoia saltzeko kontratazio espedientea eta Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean hiru proposamen aurkeztu dira, eta hirurak onartu dira:

- BAÑU-ETXE, S.L.
- BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L.
- ARREGI ETXABE JUAN JOSE, S.A.

Hiru lizitatuzaileek 2. gutun-azalean aurkeztutako proposamen ekonomikoak ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintzak segida beharokorrean sailkatu ditu, prezioaren arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Eskaintzen ondorengo sailkapena onartzea:

	<u>Enpresa lizitatuzailea</u>	<u>Proposamen ekonomikoa</u> €/tonako	
		<u>Edukiontzi urdinetan eta atez ate jasotako materialak</u>	<u>Garbiguneetan eta denda eta industrietan jasotako materialak</u>
1	ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A.	111 €/tonako	105 €/tonako
2	BAÑU-ETXE, S.L.	104 €/tonako	110 €/tonako
3	BIDASOA ECOGESTIÓN, S.L.	81 €/tonako	92 €/tonako

2. Sailkapen honen arabera, ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta behin betiko bermea aurkezteko.
3. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.5.- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Mankomunitateak jasotako etxeetako hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean lau proposamen aurkeztu ziren, laurak onartuz:

1. BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L.
2. HONDAKIN, S.L.
3. FCC AMBITO, S.A.
4. CESPAS GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A.U.

2 gutun-azalean jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, 3 gutun-azaleko proposamen ekonomikoak ireki ditu Kontratazio Mahaiak eta eskaintzak segida beharokorrean sailkatu ditu, Administrazio-Klausula Berezien Agirian jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Eskaintzen ondorengo sailkapena onartzea:

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Txosten Teknikoa</u> 20 puntu	<u>Proposamen Ekonomikoa</u> 80 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	HONDAKIN, S.L.	14	73,6	87,60
2	FCC AMBITO, S.A.	19	37,92	56,92
3	CESPA GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A.U.	4	49,3	53,30
4	BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L.	1	48,74	49,74

2. Sailkapen honen arabera, HONDAKIN, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, 1 gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta behin betiko bermea aurkezteko.
3. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.6.- Hondakin bilketa eta garraio zerbitzuaren ibilbideen denbora estandarrak finkatzeko prozedura negoziatua; eskaintza bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko martxoaren 14an egindako bilkuran, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez etxeko hondakin bilketa eta garraio zerbitzuko ibilbideen denbora estandarrak finkatzeko kontratazio espediente, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Plegua onartzea erabaki zuen, lau enpresa gonbidatuz.

Horretarako emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu zen, MTM INGENIEROS PARA LA MEJORA CONTINUA, S.L. enpresarena.

Enpresa honek aurkeztutako oinarritzko eskaintza aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak negoziazio aldia ireki zuen, aipatu enpresari 3 laneguneko epea emanaz Pleguan jasotako negoziazio gai ziren alderdi tekniko eta ekonomikoren bat hobetzeko, edota bere oinarritzko eskaintza berresteko. Enpresak bere oinarritzko eskaintza berrestu zuen.



Aurkeztutako eskaintzak Baldintza Agirian jasotako baldintza guztiak betetzen dituzenez, baita lizitazio prezioa ere, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. MTM INGENIEROS PARA LA MEJORA CONTINUA, S.L. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita pleguaren 12. klausularen A) atalean jasotako dokumentazioa, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.7.- Txatarra saltzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu luzatzea

Mankomunitate honek jasotako txatarra saltzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin 2010eko irailaren 1ean sinatutako kontratuaren hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera, eta kontratistaren adostasunarekin, Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipaturiko kontratua beste urte betez luzatzea, hau da, 2018ko abuztuaren 31 arte.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2017-2020 Plan Ekonomiko-Finantzariora

Entitate honek onartutako aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua/zor publikoaren helburua/gastuaren araua. Hortaz, beharrezkoa da plan ekonomiko-finantzario bat egitea, otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan jasotakoaren arabera.

Plan horrek ezaugarri hauek bete behar ditu:

Plan ekonomiko-finantzarioa entitateko Gobernu Juntari aurkeztu behar zaio, hilabeteko epean gehienez, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera. Gobernu Juntak bi hilabeteko epean onartu behar du plana, aurkezten zaionetik aurrera, eta hiru hilabete igaro baino lehen jarri behar da martxan, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera.

Planak bermatu behar du aurrekontu egonkortasunaren helburua/gastuaren araua jarduneko ekitaldian edota hurrengoan betetzen dela.



(Zor publikoaren helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan-ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020. urteko denbora muga.)

Onartutako plan ekonomiko-finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaio, haren jarraipena egin dezan.

Hori dela-eta, Gobernu Juntak ERABAKI hau hartu du:

- Onartzea plan ekonomiko-finantzarioa, hiru atal hauek dituena:
 - 1.- Kontu-hartzailearen txostena
 - 2.- Alkatearen memoria
 - 3.- 2017-2020 epealdiko aurrekontu eszenarioa

2.2. 2017ko Lanpostuen Zerrenda onartzea

2017ko lanpostuen zerrenda zehatz-mehatz aztertu ondoren, eta ikusirik iazkoarekin alderatuta aldaketa bakarra ordainsarien %1eko igoera dela, Estatuaren 2017ko Aurrekontuen Legean jasotakoa, langileen ordezkarien adostasunarekin, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

1. 2017ko Lanpostuen Zerrendari hasierako onespina ematea, bertan jasotako ordainsariak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduz.
2. 15 lanegunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartutzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; luzapenak

G.L.L.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko irailaren 6ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, G.L.L. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2016ko ekainaren 14ko erabaki bitartez.

.R.R.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko irailaren 6ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 1-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, I.R.R. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2016ko uztailaren 12ko erabaki bitartez.

Une honetan, María Ubarretxena joan da bileratik.

4.2.- Mankomunitateko hainbat udalerritan argiteri publikoaren instalazioak berritzeko proiektu bateratua; IDAEekin mailegu kontratua eta Udalekin hitzarmenak sinatzea

2016ko martxoaren 1eko bilkuran Gobernu Juntak hartutako erabakia betez, Mankomunitateak IDAEren aurrean bere hainbat udalerritan argiteri publikoaren instalazioak berritzeko proiektu bateratua finantzatzeko mailegu eskaera aurkeztu zuen.

IDAEk aipatu eskaera onartu zuen, eta Mankomunitateak, 2016ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

- IDAEk emandako mailegua onartzea, eta berarekin dagokion mailegu kontratua sinatzea ondorengo baldintzetan:
 - Erakundea: I.D.A.E. Eraginkortasun energetikoaren fondo nazionala.
 - Helburua: Udal kanpo argiteri instalazioen berritzea finantzatzea.
 - Zenbatekoa: 1.719.560 €.
 - Interes tipoa: %0,0a.
 - Amortizazio epea: 10 urte.
 - Gabealdia: 12 hilabete.
 - Bermea: Salbuetsia I.D.A.E. lehentasunezko hartzekodun.

Orain, proiektu bateratua gauzatzeko kontratuak sinatu ondoren, IDAEk maileguaren behin betiko zenbatekoa finkatu du 1.464.779,38 €-tan, mailegu kontratuaren zirriborroa bidaliz.

Bestalde, proiektu bateratu hau garatzeko 2016ko martxoaren 1ean Mankomunitateak Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko Udalekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausulan zera esaten da: *“IDAEren behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak projektuan parte hartzen duen Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.”*

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. IDAEekin dagokion mailegu kontratua sinatzea, proposatutako testuaren arabera.
2. Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko Udalekin hitzarmenak sinatzea Udal bakoitzari dagozkion ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.

4.3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako “Debabarrena eta Debagoiena Eskualdeetako Bazterkerian dauden Pertsonen Prestakuntza eta Enplegurako Sarea” proiektua garatzeko DEBEGESArekin lankidetzaz hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak “Etorkizuna Eraikiz” programa argitaratu zuen gure gizarte-ereduan eragile ekonomiko eta sozialek sustatutako proiektu berritzaileen finantzazioa bideratzeko. Proiektu horiek Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatutako dira. Gipuzkoaren eraldaketa sozial eta ekonomikorako lurraldeko eragileen dinamizazio prozesua aktibatzea da kontua, zenbait esparrutan eragingo duten proiektu praktikoei laguntza emanez, izaera berritzailea izanik erreferentzia izan daitezkeenak eta eragin biderkatzailea izango dutenak.

Aipatu programaren barruan, Mankomunitate honek eta Debegesak “Debabarrena eta Debagoiena Eskualdeetako Bazterkerian dauden Pertsonen Prestakuntza eta Enplegurako Sarea” proiektua aurkeztu zuten elkarrekin, eta Foru Aldundiak eskaera onartu eta 41.125 €-ko diru-laguntza ematea erabaki zuen proiektu hau finantzatzeko.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak, Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- DEBEGESA-rekin (Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A.) lankidetzaz hitzarmena sinatzea aipatu proiektua elkarrekin garatzeko, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da **“Debabarrena eta Debagoiena Eskualdeetako Bazterkerian dauden Pertsonen Prestakuntza eta Enplegurako Sarea”** proiektua garatea. Proiektuaren edukiak azaltzen dituen txostena hitzarmen honi erantsen zaio. (2. eranskina) Aipatu proiektuaren garapenean parte hartzea konprometitzen dira bi aldeek, behar hainbat gaitasun tekniko eta esperientziadun langileak horretan inplikatzuz.

Proiektuaren helburu eta edukiak ondorengoak izango dira:

Debabarrena eta Debagoieneko Garapen Agentziek egindako diagnosiaren ondoren, bazterkerian dauden edo horretan erortzeko arriskuan dauden pertsonendako, batez ere gazteak eta ardura familiarrak dituzten emakumeendako, enplegua eta prestakuntza uztartzen dituzten programen sustapenaren beharra azaleratu da. Horrek, erantzun berritzaileak behar ditu, erakunde ezberdinen artean lankidetzaz eta sinergiak sustatuko dituena.

Era berean, gizartean barneratzeko ibilbideak landu behar dira, beti ere pertsona horien hezkuntza eta prestakuntza bidez komunitatean beraien txertaketa bideratzeko. Eskualde bietan prestakuntzarako baliabide egokiak daude baina baztertuak dauden pertsona nagusiendako ez da eskaintza egokirik. Horrek ez du esan nahi ekimen puntualak garatzen ez direnik baina eskaintza era koordinatu batean eman behar litzateke, non parte hartuko luketen ardura partekatua duten erakundeak (Enplegua, Prestakuntza, Gizarte Soziala, buruko osasunaren zerbitzuak, Etxebide, e.a.)

Horrela garatu beharreko hiru lerro nagusi aurreikusten dira:



Beharren definizioa: Baztertuta dauden pertsonendako erantzun antolatua eta partekatua enplegu eta prestakuntza ekimenak bideratzeko.

Ezagutza: Pertsona talde horri erantzuna ematen dieten baliabide eta sistemen erlazioa.

Enplegu eta prestakuntza sare baten diseinu eta garapena: Txertaketarako banakako ibilbideak eskaintzen dituen sare koordinatua eta bateratuaren diseinu eta garapena.

Hori guztia kontuan hartuta, proposamen honek bilatzen duena, beti ere proiektu berritzailea bultzatuz, gizarteratzeko arazoak dituzten pertsona guztien beharretara egokituko den sarea garatzea. Pertsonen ahalmenak sustatuko dituzten dinamikak garatu nahi dira, beraien eskumenak kontuan hartuz, prestakuntzaren bidez, lan merkatuan txertatzeko aukerak handituko dituen bidea indartzea. Sare hori osatzeko elkar ezagutza erraztuko dituzten foroak sortu nahi dira, eragileen lankidetzaren bidez emaitzak areagotuz.

BIGARRENA.- DEBEGESAK proiektu hau garatzeko Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntza ordainduko dio taldea osatzen duen onuradun bakoitzari, Foru Aldundiak onartutako banaketaren arabera. Eranskinean jasotzen diren koadroetan azaltzen dira proiektuaren kosteak eta erakunde bakoitzak egotzitako eta justifikatu beharko dituen pertsonalaren dedikazioa zein proiektua garatzeko egingo diren beste gastuak. Era berean, proiektuaren finantzaziorako jasotako diru-laguntza eta projektuan parte hartzen duten erakundeen ekarpena beste koadro baten jasotzen dira. Foru Aldundiak proiektuaren kitapenean ez balu justifikazioren bat onartuko eta ondorioz diru-laguntzen murrizketak ezarri gero, aipatutako murrizketa dagokion erakundeari aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA.- Diru laguntza jaso ahal izateko taldeko onuradun bakoitzak bete beharko ditu aipatu deialdian jasotako betebeharrak guztiak.

LAUGARRENA.- Proiektua, beranduen jota, 2018ko ekainaren 30ean bukatuko da.

BOSGARRENA.- Hitzarmen hau indargabetzeko arrazoiak izango dira:

- Aldeen akordioa berai indargabetu edo ezeztatzeke.
- Aldeetako bakoitzak ez betetzea hemen deskribaturiko klausulen edukia.

SEIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, lankidetzaren esparruan, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tratatu beharko dira, eta ezingo dira erabili hitzarmen honetan hitzarturiko xedeaz bestelako helburu baterako.

ERANSKIN EKONOMIKOA

Kontzeptua	Justifikatu beharrekoa	Diru-laguntza
Debegesako barne pertsonala	11.945,07	9.490,15
DGM barne pertsonala	10.286,59	8.172,51
Debegesa / Kanpo aholkularitza zerbitzuen kontratazioa	11.731,17	11.731,17



DGM / Kanpo aholkularitza zerbitzuen kontratazioa	11.731,17	11.731,17
GUZTIRA	45.694,00	41.125,00

4.4.- Oarsoaldea, Garapen eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena PRINCE proiektua garatzeko

PRINCE proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiko "ETEn (enpresa txiki eta ertainen) gaitasunen sustapenerako programa, ezagutzaren transferentziaren bidez eta eskualdean esku hartuz" diru-laguntza deialdiaren barruan dago. Proiektu hau garapen agentzien parte-hartzean oinarritzen da Gipuzkoako eskualdeetako enpresengana heldu ahal izateko.

Debagoiengan PRINCE proiektua garatu ahal izateko Oarsoaldea, S.A. enpresa publikoarekin eta GARAPEN Garapen Agentzien Euskal Elkartearekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea proposatzen da.

Hitzarmen honen helburua Debagoieneko enpresen lehiakortasuna hobetzea da, beraien beharrezkoak ezagutzuz, lehiakortasun eragile eta enpresen arteko sareak eraikiz eta lehiakortasuna lortzeko prozesuan enpresei lagunduz.

Oarsoaldea, S.A.-k 18.675 € ordainduko dizkio Mankomunitate honi eskualdeko 10 enpresetan egin beharreko ekintzak finantzatzeko. Mankomunitateak, berriz, GARAPEN Elkarteari 439,67 € ordainduko dizkio bere lankidetzagatik.

Proposatutako hitzarmenaren klausula guztiak irakurri ondoren, Gobernu Juntak, Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Oarsoaldea, S.A. enpresa publikoarekin eta GARAPEN Elkartearekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, proposatutako klausulen arabera.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

17/42.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketaren modalitatekoa, 2017-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	74.614,28
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.370,58
6	INBERTSIO ERREALAK	831.090,60
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		912.075,46

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	912.075,46
FINANTZAKETA GUZTIRA		912.075,46

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

17/43.- 17/15 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA BERREHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (364.244,19 €).

17/44.- 1.- J.T.L. kontratatzea J.E. txoferraren ordezkapena egiteko ekainaren 6tik aurrera bere gaixotasunagatikoko bajaldia bukatu arte, ekainaren 13an, G.I. txofer-zamaketariarena, eta ekainaren 29an eta 30ean berriro, J.E.rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

2.- M.A.E. kontratatzea ekainaren 15etik 17ra D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, eta ekainaren 26an, J.A. zabortegiko zaintzailearena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

3.- E.A.I. kontratatzea ekainaren 20an eta 30ean goizez D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, eta ekainaren 24an eta 26an goizez, A. U.rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- J.E.I. kontratatzea ekainaren 26tik 30era eta uztailaren 3tik 28ra G.I. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- J.R.A. kontratatzea uztailaren 7tik 28ra J.J. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/45.- - I.Z.M. izendatzea bitarteko funtzionario, 2017ko ekainaren 8tik aurrera, aipatu turismo teknikariaren ordezkapena egiteko, bere amatasun baimena bukatu arte. Hileko 2.604,10 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 931,11 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,29 €. (18)
- Berariazko osagarria: 1.274,70 €.

17/46.- - J.E. langileari 5.409,12 €-ko mailegua ematea, 24 hilekotan itzuli beharko duelarik.

17/47.- 2017ko ekainaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako "Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2 fasearen itxiera partziala eta 3 fasearen sorreraren Proiektua" gauzatzeko lanak kontratatzeko lizitazioari uko egitea.



Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean lehenbailehen argitaratzea.

Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea hurrengo bilkuran.

17/48.- 17/16 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HAMABOST MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAIKA EURO ETA ZENTIMO BAT (415.331,01 €).

17/49.- - E.M.G. bitarteko funtzionario izendatzea, 2017ko uztailaren 3tik azaroaren 2ra arte, lau hilabetez, uda garaiko lan pilaketari aurre egiteko. Hileko 2.250,85 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 931,11 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,29 €. (18)
- Berariazko osagarria: 921,45 €.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Etxeko hondakinen bilketa eta garraio zerbitzua emateko kontratu berria dela eta, uztailaren 27an, goizeko 11:00etan, Gobernu Juntaren bilera berezi bat egingo da, eta bilera hasi aurretik Debagoieneko Gizarte Maparen aurkezpena egingo da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.